



Iturria: *Txingor egadak*, Maruri'tar Erramun. Graf. Izarra, 1964.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MaruriTxindorEgadak.htm>

## **TXINDOR-EGADAK**

**Erramun Maruri**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## IRAKURLEARI

Begi begiko irakurle ori, ainbeste garren urtean emen natorkizu agur gozo bat egiten.

«Biotza Abeslari» ta «Lili Txingar»-eri ere arrera ona egin ziozun, euren errasturik ere, aspaldiko urte oetan ezin da arkitu. Erre gabarik, arrera onez saldu ziraden ta orain dator ludi onetara TXINDOR EGADAK, urteak joan, urteak etorri, luzaroan begira egon da.

TXINDOR-EGADAK, «Biotza Abeslari» ta «Lili-Txingar»-en anaya da. Eta euren egille edo eurekaitik orra zer diñoen bere idazti berdin gabeen «Milla Euskal Olerki» ederrean, euskal olerki ta euskerari dagokion arazoetan punterengo dan Oinandia Aba karmeldarrak: «Olerkari bikaña, bulkoz jagi ta biotzondo ezti. Igon minez dager beti uso zuri antzera Zeru-azpiz ega luzean biraka. Usein gozoz lurrindu ditu bertsoak, joran, kili-kili ta txingar bizi diranak».

«Biotza Abeslari», laixter bigarrenez argitaratuko da. «Lili-Txingar» laixter bigarrenez argitaratuko da. Arren bada arrera ona egin iru anayari. Eskerrik asko.



## JAINKOTIAK

## Zeru-bidea

Gazte nintzala  
Mendi gañera  
Igon nai eta,  
Mutiko pillak  
Artu genduan  
Bide zabala.

Aldapak gora  
Bide estutzen  
Batzuk nekauta  
Bestek etxita  
Bidea errez  
Askok utzitzen.

Mendi gallurran  
Biderik etzan  
An bil giñanak  
Ze gutxi giñan,  
Beste guztiak  
Pot ein bidean.

Zeru-bidean  
Adibidea  
Auxek bai dala,  
Samiña baño  
Ezin ukatu  
Dala egia.

*Ondarrabi, 1927*



## Gozagarria

Odei gaberik  
Egunik ez,  
Ez da atsedunik  
Neke gabez  
Zeru goyetan  
Ez izanez.

Augaitik nabil  
Beti nekez  
Baño lorretan  
Erdi parrez,  
Egon naitean  
Gero pozez.

Gero dionak  
Bego dio,  
Ez det esango  
Nik geroko  
Egintza onez  
Dala mintzo.

Nire arloa  
Ona emen  
Yosu maitea  
Maitatu len,  
Gero atsegin  
Izan naiten.

Sinistea det  
Lasaigarri,  
Nere saminen  
Gozagarri,  
Ta zitzaidan  
Irozgarri.

Zeru-ateak  
Dakusdaz nik,  
Odei goyetan  
Txit zabalik,  
Gogo dontsuak  
Artu nairik.

Ene gogoa  
Zerurantz  
Artu dezazun  
Zure egada  
Izan zaitea  
Emen ona.

*Ondarrabi, 1925*



## Miren ederra

Klabelin gorri  
Polit polita  
Bardin gabea  
Jainkon maitea.

Mosun arrosa  
Begin dizdira,  
Olakoxea  
Bere maitea.

Gorputza lerden  
Gogo erruge,  
Lain da izateko  
Biotzen jabe.

Beralakorik  
Besterik ez da  
Donoki lurran  
Bera bakarra.

Jainkok egin zun  
Arduraz bera,  
Izan zedian  
Arrigarria.

Egin arduraz  
Zaitu arduraz  
Eta edertu  
Eskar guztikas.

Andre ederra  
Andre maitea,  
Nigaz erruki  
Doaiz betea.

## Eguberri

Gaur da Yosuren eguna  
Gaur da Eguberri  
Gaur Jainkoaren semea  
Dala yayoberri.

Gaur egin dira pakeak  
Belenen ederki,  
Ume Yosuk ordainduta  
Zor guzi Jainkori.

Jainko ta gizon artean  
Emendik aurrera,  
Izango dira pakeak  
Senide baidira.

Gaur Jainkoan errukiak  
Senda du gizona,  
Emanaz bere semea  
Osasun-mamia.

Eguberri egun dala  
Egun oroikorra,  
Errukin erruki gañezka  
Yosuk damaguna.

*Ondarrabi, 1927*



## Sagua legez

Txoko batean  
 Pozik sagua,  
 Yaten dagola  
 Gazta goxua.

Baño katuak  
 Daula zalatzen,  
 Eta arrapatu  
 Jauzkada baten.

Gero katua  
 Pozik yolasten,  
 Baño sagua  
 Gorrik ikusten.

Ludi onetan  
 Gizon ergela,  
 Bizi oi dala  
 Lasai eroa.

Atsegin ezтик  
 Joranez janik  
 Gerokoagaz  
 Oar gaberik.

Baña onetan  
 Dator belea,  
 Bizia kentzen  
 Errai gabea.

Gaizkiñak gero  
 Dabiltz jolasten  
 Baña gizona  
 Gorrik ikusten,  
 Atsedan bako

Min bizietan  
 Beti betiko  
 Su ta garretan.

*Ondarrabi, 1927*



## Bizitza

Nik egun batean  
Ezer nintzala,  
Uste izan munduan  
Askok bezela.

Baño bai zera, gaur  
Ezer bagera,  
Biar ezereza  
Besterik ez gera.

Itzala edo keia  
Argi dizdira,  
Dana dala ere  
Gauz igeskorra.

Ziriez auxek dala  
Geran guztia,  
Gaur ezer bagera  
Biar ezereza.

*Ondarrabi, 1927*

## Neguaren igalia

*Oiña, Zubigar, begikoarengandik artua.*

Neguaren sortuna  
Lotazilla dala,  
Eta edur zuria  
Beraren lorea.

Baño bere igalia  
Ume Jesus dala.  
Askatxo baten dagon  
Belengo Aurtxo.

Gure ama lenenak  
Sagarra jan eta,  
Seme gaxo guziri  
Damaye eriotza.

Baño Andre Mariak  
Aurtxo bat emanda  
Guztiori damaigu  
Betiko bizitza.

Oi ze goxo! Mariak  
Damaigun sagarra,  
Bein jan ezkeru batek  
Berriz jan bearra.

*Ondarrabi, 1927*



## Gogo Donea

Emaitzez bete  
Neure barrena,  
Emaitz-iturri  
Zaren Gogoa.

Goiargiz argi  
Neure gogoa  
Jakin dagidan  
Zerubidea.

Zerurantz bultza  
Nere bateda,  
Aizea zaren  
Gogo Donea.

Eta gozatu  
Neure samiña,  
Eztia zaren  
Gozatzalea.

Indartu zazu  
Neure naimena,  
Indarra zaren  
Indartzalea.

Sutu egizu  
Neure biotza  
Goi-sua zaren  
Txinpart bizia.

Damadazu bai  
Sua zarena,  
Izotz ordañez  
Niri goi-sua.

Damadazu bai  
Bizitz donea,  
Bizitz emalle  
Zaren bizitza.

*Muskaria (Tudela), 1926*





## Belendik

Gaur goitik betik  
Alde guztitik,  
Argi diztiak  
Joten nu goiztik.

Baño badakik  
Datorren nondik,  
Jesus jayota  
Dator Belendik.

Belenen dago  
Ume Jainkoa,  
Bene benetan  
Maitagarria.

Eman zidala  
Berak bizia,  
Oin nai dit eman  
Bizi-iraunpena.

Ortarakoxe  
Ein da txikia,  
Ni egiteko  
Zeru-jabea.

Bizi naitean  
Zeru-zorunan,  
Beti betiko  
Atsegiñetan.

Belenen dago  
Ume txikia,  
Neure biotzan  
Alaitasuna.

Oi Belen, Belen  
Zoriontsua,  
Ume Jesusen  
Jayoterra.

Oaingoan beintzat  
Izan zaitea,  
Neureganako  
Mandataria.

Esan zayozu  
Ume Jesusi,  
Maite detala  
Biotz guztiti.

*Ondarrabi, 1927*



## Jesusen Espak

*Erderazko olerki «Yo fui dueño  
de un jardín» en euskeralbena*

Arrosaz landatuta  
Neukala baratza,  
Baño arrosa ordez  
Oin damat arantza.  
Neu naiz baratz ori-ta  
Errukia Jauna.

Neure biotz au dala  
Benetan kabia,  
Txorik igez eginda  
Oin utsik dagona.  
Oi! Zein dan txori ori  
Nik badakit Jauna.

Baneukan semetxo bat  
ajolaz asia,  
Oin dabil txarkerian  
Niregaz aztuta.  
Neu naiz semetxo ori-ta.  
Nizaz errukia.

*Ondarrabi, 1928*

## LORETZOAK



## Txindorra

Txindorra dauka izena  
 Bizkaiko lurrean  
 Eta txantxangorria  
 Gipuzko aldian  
 Txoririk apalena  
 Txorien artean  
 Augaitik sarri jausten  
 Katuen erpean.

Bularra gorri dauka  
 Maitasun itxuran  
 Umek gordetzen ditu  
 Era samurrean,  
 Ume gañean etzanda  
 Beraxen kabian  
 An dago jausiarte  
 Etxayen eskuan.

Bere abesti bada  
 Goxo begikoa  
 Beraren ordu dala  
 Ordurik onena,  
 Izotz edo edurrez  
 Dardaraz gaudela  
 Entzun oi degu sarri  
 Beronen doñua.

Adar mean jarri-ta.  
 Kantari dagola  
 Txiruliu bakoitzean  
 Noiz lertu paparra,  
 Maitatzen ez duanak  
 Txoritxo maitena  
 Ez du inoiz maitatuko  
 Maitagarri dana.

Garbitu omen zuan  
 Bein gurutze deuna  
 Betiko atzindurik  
 Txepetxaren lana,  
 Ta ez omen du artu  
 Oraindik saria  
 Txoriño begikoa  
 Badaba ordua.

Laster bilduko dira  
 Iparreko landan  
 Eusko txori guztiak  
 Batzar nagusian,  
 Ama andre autatzeko  
 Guztien begian  
 Lasai egon daitezen  
 Aren babesean.

Auteskunde orretan  
 Zuzentzarik dala  
 Autatuko dutela  
 Amatzat txindorra,  
 Txori guztin artean  
 Alerik ez dala  
 Onek ain maitasunik  
 Biotzean daukala.

Gernikako arbola  
 Asi da sentitzen  
 Bere sustrai barrean  
 Zelan dan bizitzen,  
 Muiña dator gorata  
 Badijo loratzen  
 Euskera zale guztik  
 An bildu daitezen.

Batzarrak egiteko  
 Aspaldikon ordez



Okerrak zuzentzeko  
Zuzentzak egiñez,  
Ta onak saritzeko  
Eskuak zabalez  
Anditatik asi-ta  
Txikik aztu gabez.

Datorrenean txanda  
Txorik saritzeko  
Batzarrak bilduko du  
Txindorra gorengo,  
Aritz-abar ederrez  
Auxek sarituko  
Guztin aurren omenduz  
Beti betirako.

Gizaldiak joan-eta  
Gizaldik etorri  
Suak kiskaliko du  
Mundu eder ori,  
Bakarrik parkatuaz  
Txindor begikori  
Beti ibili dedin  
Itunen pozgarri.

*Ondarrabi, 1924*

## Lilia

Arantz artean  
Lili txuria,  
Ixil ixilik  
Azitzen dala.

Bañan arantzak  
Eskun pupua,  
Aldatu bear  
Beaz lilia.

Nere baratza  
Loraz betea,  
Lore ederrena  
Lilia dala.

Urretxindorra  
Dagon lekuan,  
Entzun bearko  
Doñuak bertan.

Lili txuria  
Dagon baratzan,  
Bizi bearko  
Lurrin goxoan.

Baratz ontara  
Datorren guztik,  
Laister sentitzen  
Lilin urrinkaik.

Beaz ez bego  
Baratz alerik,  
Erdi erdian  
Lili gaberik.

*Ondarrabi, 1927*



## Basatxoria

Agur dagizut  
Basatxoria,  
Mendi gallurran  
Agurtzalea.

Auts-margoa ta  
Mutur luzea,  
Marra beltz batzuk  
Zuk dituzula.

Mendira igota  
Ez dakit nondik,  
Baña ondora  
Arin zatorkit.

Egitera agur  
Esker eskuitik,  
Edo zintzilik  
Odoyetatik.

Gogoz abestuz  
Zeure abestik,  
Arrera onena  
Egiteagaitik.

Mendi gallurran  
Geyago barik,  
Zeure agurra  
Naiko saririk.

Agur txoritxo  
Mutur luzea,  
Laster nator ni  
Berriz zeugana.

*Ondarrabi, 1927*

## Aitona ta udaberria

Izadia udaberrian  
Egiten dala poztu,  
Baña urtetik urtera ni  
Egiten naiz gogortu.

Beti udaberri-kiman  
Egiten naiz ni poztu,  
Baña urten astunak dagit  
Geyegi poza neurtu.

Ume banintza, Oi poza!  
Gazte banintza ametsa,  
Ez naiz bata ez bestea  
Aiton zar bat ezpada.

Agur dagizut zoruna  
Agur udaberria,  
Sar gabe neure atetik  
Zoazte-ta aurrera.

*Ondarrabi, 1928*



## Txiribiri

Txiribiri eder  
Ego andi ori,  
Nundik etorri aiz  
Guztion pozgarri?

Zarrak kendu gabe  
Ume ta mutiko,  
Guztiek daudela  
Berauxe begiko.

Txiribiri bizi  
Ego eder duna,  
jira bira dabil  
Loretik lorera.

Zuria danean  
Dana da dizdira,  
Gorrizke danean  
Ain dala polita.

Ta beltza danean  
Ez dirudi beltza,  
Jario daukala  
Beltzaren dizdira.

Auarren baditu  
Ume galgarriak,  
Lore ta landare  
Ondatzen daitunak.

Nekazariak dakus  
Dana samindurik,  
Soloan arbiak  
Ondoriño janik.

Eta lipo pillak  
Ortzak zorrozturik,  
Lanerako gertu  
Lo-xusta egiñik.

Noren ume dira  
Zomorro gosetik,  
Soloan direla  
Pizti ain galgarrik?

Txiribiriaren  
Umedia dira,  
Soloan dakusan  
Zomorro izuria.

Ludi onetantxe  
Au sarri gertatzen,  
Bat irudi-eta  
Beste bat izaten.

*Ondarrabi, 1926*



## Marrubiak

*Oiña, Pierre Dupont'tik artua.*

Oi! zein goxok, zein usaintsuk  
Marrubiak direan,  
Batek ondo ez dakila  
Guztatu artean.

Marrubi zalea dana  
Betor ordu onen,  
Maruriko munetara  
Marrubik batxen.

Bagillako goiz batean  
Egun argi danean  
Berdura artean daudenean  
Dizdira gorrian.

Oi! zein goxok, zein usaintsuk  
Marrubik dagozan  
Otartxuan dagozenen  
Batuta munetan.

*Ondarrabi, 1928*

## Edurra

Edur zuria  
Mendi goyetan  
Dakust ugari  
Urte onetan.

Baño lenengoz  
Ate ondoan,  
Gaurko goizean  
Urte onetan.

Augaitik pozik  
Altsa naizela,  
Entzun detanen  
Auxek edurtza.

Eiztari guztin  
Tentazioa,  
Bene benetan  
Edurra dala.

Andik izkilluz  
Txikiak sarez,  
Txorik arrapan  
Estu dabiltzez.

Baita katuak  
Saguen ordez,  
Txorik arrapan  
Dabiltz yoranez.

Edur zuria  
Eiztarin poza,  
Baño txorien  
Ondamen utsa.



Ludi onetan  
Errez ez dala,  
Bat izatea  
Guztien poza.

*Ondarrabi, 1927*

## Urretxindorran gustua

Neure baratz txikitxo  
Dagola zoragarria,  
Erdi erdian daukala  
Prantzez-arrosa landara.

Baratz loretsu alayan  
Lorez dagola betea  
Itxuraz bera bai dala  
Landaretan ederrena.

Urretxindorran begiak  
Antxek egin du kabia,  
Doñu zolian gañera  
Berak bai dauka guztua.

Prantzez-arrosan loreak  
Len baño ederragoak,  
Edertu daitualako  
Urretxindorran begiak.

Beaz doñu eresintsuak  
Lora-mota begikoak,  
Urrinkai eta likurtak  
Daitula nere baratzak.

Iñork badauka baratzik  
Neurea besteko danik,  
Egin dagila biderdi  
Galdu nai badu inkari.

*Karkasona, 1927*





## Artzaya nagusi

Nik maitatutzen badet  
Artzayan bizitza,  
Maitatutzen detala  
Dalako azkea.

Makilla dauka eskun  
Artzayak mendian,  
Azkatasun zoruna  
Bere biotzean.

Kantari ezpadago  
Txistulari dago,  
Jezarrita arrigañen  
Arranetan bapo.

Gañen inor ez dauka  
Ezer agintzeko,  
Bere azkatasuna  
Ondo gorde dago.

Zelai mendi ibarretan  
Bera da nagusi,  
Mendeko dituala  
Gure beste ardi.

Beraren errintzia  
Irrintzi alaya,  
Benetan bai dalako  
Zorun igalia.

*Ondarrabi, 1927*

## Kuku

Kukua dala  
Misterioa,  
Beti aboan  
Ta beti iluna.

Ez dala umerik  
Ez da gazterik,  
Kukuaz sarri  
Mintzo ez danik.

Zarrak batera  
Nai dute poztu,  
Gaztetan legez  
Entzunik kuku.

Txori artean  
Markesa degu,  
Berak umerik  
Aziko ez du.

Bañan iñudek  
Arkitzen ditu,  
Txoritxoetan  
Beti erreztxu.

Udaro berak  
Bost arrauz jartzen  
Ta bost kabitan  
Ditula ipintzen.

Kabiak duban  
Iñudek duban  
Txori au lakorik  
Ez da munduan.

*Ondarrabi, 1928*



## NASKALDIA

### Agur mintsua

Ama gabeko ume gaxoaz  
 Arkitu naiz gaur bidean,  
 Agur nai zidan egin gaxoak  
 Beintzat ala zirudian,  
 Baña itun-sotiñak ito zien  
 Agurra arin estarran.

Zergaitik Jaunoi laja dituzu  
 Ainbeste umezurtz ludian,  
 Negar erbesten erbesteturik  
 Itunez ito-zorian,  
 Alai ta pozik iñoiz egote  
 Eragotzerik agian?

Ene Yosu bizitz-eriotzan  
 Samin samiñez josia,  
 Samin guztiak guztatu arren  
 Umezurtz izan gabea,  
 Saminegia zalako edo  
 Ama gabe bititza.

*Ondarrabi, 1928*



## Ameriketari

Zertarako etorri naiz ni  
Iparrameriketara,  
Utzirik neure erri maitea  
Emen itun bizitzera?

Mendi artean beti bakar  
Ardi galduan antzera,  
Nai ezkeru txanponik bota  
Iñoiz aurrezki kutxara.

Gau ta egun basamortuan  
Basapiztien antzera,  
Iñoiz mesarik entzun gabe  
Urtebarritik zarrera.

Bein ta berriz damu detala  
Etorri nintzan eguna,  
Biotz iluna alaitu nayan  
Uri ondora nijoa.

Emen ere gogoa txarto  
Ta txanponak txartoago,  
Gaztau erazten daustelako  
Irabazi ta geyago.

Zertarako etorri naiz ni  
Iparrameriketara,  
Utzirik neure erri maitea  
Emen itun bizitzera?

*Ondarrabi, 1925*

## Busturia

Busturiko erritxoa  
Beti irriparrean,  
Alai egoten zera zu  
Itsas-basterrean.

Zegaitik niri biotza  
Lapurtu didazu,  
Ixil eta leun, lapurra  
Baziña legez zu?

Zegaitik Busturirako  
Daukat detan lera,  
Busturia yayotteri  
Neuretzat ez dala?

Zegaitik bein Busturira  
Neu eldu ezkeru,  
Abiña ta Sukarrieta  
Ikus bear gero?

Abiña ta Sukarrieta  
Txatxarra ta Leida,  
Busturiegaz zerate  
Lur zoragarria.

Gizon euskeldun bikaiñen  
Naigabe-oinkadak,  
Bikaindu ta omenduko  
Itxaso basterrak.

Benetan zerate zuek  
Baster omenkorrak,  
Ta eusko biotzarentzat  
Txoko begikoak.

*Ondarrabi, 1925*



## Ituna

Zorigaiztoko  
Pizti zitala  
Oroimen arra  
Legez ankerra,  
Biotz erdian  
Sartu zait-eta  
Geroztik nabil  
Kupigarria.

Pisurik gabe  
Narraz narrazka,  
Miñik ezarren  
Oñazetua,  
Egun erdian  
Argi gabea  
Benetan nago  
Kupigarria.

Biotz-ituna  
Besterik ez da  
Nere zoritxar  
Guztin zioa,  
Samin au Jauna  
Aldendu beza  
Nik edan gabe  
Aldendu al bada.

*Ondarrabi, 1925*

## Amona

Amona zarran  
Onginai guztik  
Billobatxoitan  
Dagoz josirik.

Ongaitik pozik  
Billobatxua  
Joetan dala  
Amonagana.

Doian bakoitzen  
Amonan poza  
Laztandutean  
Billobatxua.

Billobarentzat  
Beti amonak  
Goxoak edo  
Sagar zimelak.

Amonen muxu  
Bero beroa  
Azterna barik  
Amona il bada.

Ama amonik  
Ez dun umeak  
Bekoizten ditu  
Ditunak biak.

*Muskaria (Tudela), 1926*



## Astoaren espak

Garagarrak atera ondoan  
Ona zer edestu didan,  
Asto eder batek arestian  
Ariztiko gerizpean.

Antxiñeko denpora maiteak  
Beti zaituztet gogoan,  
Zuek lakorik ez da agertzen  
Berriz iñundik ludian.

Orduan nagusia ni nintzan  
Abere guztin artean,  
Oraindik zuzentasun izpia  
Egoalako ludian.

Orduan ni nintzan jakintsua  
Ni ere aintzaz betea,  
Ezta-baida gogorren aintz ori  
Neukan nik irabazia.

Itz jario ta makillazua  
Arrazoi guzti zitula,  
Aldun jakintsu Balan igarle  
Nuan nik nere etsaya.

Azkenean beartu ninduan  
Neure istillun mintzatzera,  
Ta nik bakarrik itz bat esanaz  
Goitu nuan jakintsua.

Ain garrantzitsua izan zalako  
Orduko neure gurenda  
Idazti Deunen idatzi, dago  
Idazle dala Jainkoa.

Ordun bakaldunak ezeukaten  
Abere maiteagorik,  
Ez da be ukulluko astoa besten  
Aintzat artuko gizonik.

Neure bizkar gañen irozturik  
Zijozan guda lekura,  
Ta gudakuntzan iroztu bear  
Nik gudarien kemena.

Neure gañen itzultzen ziran  
Guda irabazi ondoan,  
Aintza tartean txalok artzeko  
Beren erritar aurrean.

Ainbeste txalon ezaguturik  
Gizonen erokeria,  
Belarrik jetziz, maiz ezan nuan  
Naiko da Jaunak, naiko da.

Zorion-iturri neurtuten zan  
Zuzentasun aro artan,  
Asto ederrak batek eukirik  
Landan edo ukulluan.

Jainkok ondo ezagutzen zuan  
Nire endakoen kemena,  
Euren onez Niniben utzirik  
Bein paragarri igarlea.

Jainkon semea Jesus maitea  
Txiki edo andi zala,  
Ezan iñoren gañen eseri  
Neure bizkarren ezpada.

Ordu istilluan nik eraman ere  
Nazaretik Belenera,  
Ta istilluan nik eraman ere  
Belenetik Ijitora.



Erodes ilik kendu zanean  
Aurrarentzat arriskua,  
Pozaren pozez bizkar gañean  
Ekar nun Nazaretera.

Abar-iganden berea aintza  
Nere gañien zetorrela,  
Andi ta txiki gora didarka  
Bide ederra egjela.

Jerusalengo bide guztian  
Didarka ostea beti,  
Aintza Jesusi gora Beroni  
Aintza Dabiden semeri.

Ta abar ta estalkiz apainduko  
Bide berdin gabetik,  
Omen omentzu neraman Jesus  
Jerusalen urira nik.

Baña orain ezur eta narru  
Narraz nabil ludirik ludi,  
Ezezpena ta makillazua  
Bertan arturik ugari.

*Muskaria (Tudela), 1926*

## Osasuna

Osasuna,  
Galtzen degunen  
Agertzen dala  
Zelan dan beti  
Ogasuna.

Osasuna,  
Miñez dagonak  
Maite dula guk  
Galdutzen degun  
Zoriona.

Osasuna,  
Atsegin bide  
Ta alaitasuna  
Iturri gozo  
Zeu zerala.

Osasuna,  
Doi auzek gabe  
Gazte ta zarra  
Zori txarreko  
Beti dira.

Osasuna,  
Eri badago  
Benetan dago  
Errukigarri  
Umetxua.

*Ondarrabi, 1925*



## Il da!

*1930-III-29'an «Argia»n argitaldua.*

Batzuek iltzen guztiok gaxotzen  
Ontantxek goaz guztiok abitzen,  
Baño urrutizkiñak gaur nau minduten  
Berri beltzagaz naula zauritzen.

Zubigar Jauna gaur goizean il da  
Esan dit eta ixildu egin da,  
Baño ni ezin ezin naiz ixildu  
Galdu zaitenen Zubigar Jauna.

Lagun onena lagunik zintzona  
Mundu guztintzat izan bera,  
Ta andia bazeukan irudimena  
Andiagoa zeukan biotza.

Ta miñaren miñez gorpu aurrean  
Egin nai banun otoitz samurra,  
Negar malkoak egin didate  
Elkar arturik lutu mingaiña.

Euskaldun sinisdun esan oi bada  
Onegaitik esan daitekela,  
Otoitz garbiak eta siñezkorrak  
Bere otoitzak beti zirela.

Eusko-Maitagarri mutua dago  
Antziz ezik ezin du abestu,  
Olerkari bikaiña zan semea  
Egin zayo-ta betiko ixildu.

*Ondarrabi, 1930*

## Susana

Babiloniko urian  
Urte asko dirala,  
Susana emakumea  
Zeramaten iltera.

Onoidez betea egon  
Judeako alaba,  
Edertasun bereziak  
Eukazala gañezka.

Maitagarria zan-eta  
Maite zuan senarrak,  
Maite ere seme alabak  
Eta maite morroyak.

Gutizitu zuten bera  
Bi agure zitalak,  
Lizunkeriz ta ankerkeriz  
Gañezka egozanak.

Bere baratz ederrean  
Artzeko bustialdi  
Eukan Susana ontsuak  
Bustitegi berezi.

Bein bi agure lizunek  
Zelatu zuten bera,  
Azeri gisa txokoan  
Baratz-txokon gordeta.

\* \* \*

Egurdiko aroan  
Orra zelan datorren



Baratzera Susana  
Eguraztutearren.

Nezkame bigaz dator  
Baratzera Susana,  
Onoidetsu zan-eta  
Oyura eukan gisa.

Ordu bat lenago  
Bete egoan baratza  
Epaileku zalako  
Epailez beteta.

Idazti Deunen itzan  
Geyegi eder bera,  
Ta eguzki dizdiraz  
Zegon zoragarria.

\* \* \*

Bein bustialdi lekuan  
Sartu zan barrenera,  
Olio-lurrinkai bila  
Neskamek bialduta.

Atetxu ez gañerako  
Baratzeko ateak,  
Neskamek ixi zituzten  
Aginduta Susanak.

Bañon orra bi agure  
Orra bi epailari,  
Lizun-sukarrak bilduta  
Alkarren mandatari.

Eta ikusirik Susana  
Bakarrik lotu dala,

Arin ingurutu dute  
Barrenera sartuta.

Ta diote Susanari  
Ole zakiguz guri,  
Ateak ixia daude  
Ta ez da iñor agiri.

Zeuganako sukarragaz  
Gu zaurituak gaude,  
Gugaz egin zaite batu  
Bestela galdu zaude.

Esango degu gazteaz  
Batu egin zerala,  
Au dala-ta neskameak  
Bialdu dituzula.

Antzirika esan zuan  
Ordun Susana onak,  
Naigabez naigabetua  
Nago une onetan.

Naigabeak neukatela  
Inguruan artua,  
Iñundik ez zait agiri  
Igeseko bidea.

Zuen naya egiteak  
Dakarkit eriotza,  
Ta egin ezik erailtza,  
Nizaz erruki Jauna.

Jainkoa irainduta baño  
Beti zait niri obe,  
Obenik egin gaberik  
Zuen eskuetan jauste.





Ta abotz zolin didear dagi  
Didar errukarria,  
Bere bat dagite zarrak  
Galdu nayan Susana.

Batak didar dagiala  
Beste dijo laisterka,  
Baratz-atea irikita  
Berria zabaltzera.

Sendi ta morroi entzunik  
Baratzean zalaparta,  
Itsu-mutun etor ziran  
Gerta zana ikustera.

Ta sendo arritu ziran  
Entzunik zarren itzak,  
Susanagaitik iñoiz be  
Iñork esan gabeak.

Eta samiñez betea  
Sendia egoala,  
Gau luzearen ondotik  
Etor zan biaramona.

\* \* \*

Egun onetan goizean goiztik  
Erri guztia bildu zan,  
Susanan senar Jokiñen etxen  
Zar ayekaz zalapartan.

Susana eske arrika iltzeko  
Erriko zelai erdian,  
Moisen legea zeatz beteaz  
Susanagaz egun artan.

\* \* \*

Ta agure lizun abotik  
Erriak oyu dagi,  
Guk epaituta il dagigun  
Susana eman guri.

Basetorren gurasokaz  
Epailekura andrea,  
Basetorren semeakaz  
Susana andre ontsua.

Senide guztiak bere  
Itun-saurin benetan,  
Sotiñak goitu ezinik  
Susanagaz zetozan.

Baño zelan zan ederra  
Ederra izen alean,  
Eta arpegi estalita  
Zekarren ordu artan,  
Lizunak agindu zuten  
Atsegin sukarrean,  
Kentzeko arpegi-zapi  
Susanari bertan.

Eta eskuk Susanari  
Jarri ondon buruan,  
Asi ziraden zalatzen  
Erriaren aurrean.

\* \* \*

Eta bitartean  
Susana ontsuak,  
Donoki aldera  
Jasota begiak,  
Izuri zituan  
Negar malkoak



Ziñestuz entzungo  
Eutzala Jainkoak.

\* \* \*

Eta ona emen ordun  
Andre Susanan aurka,  
Bi agurek egiñiko  
Zalatzte biurria.

Gu biok eguraztearren  
Baratzen genbiltzala,  
Andre au bi neskamegaz  
Etorri zan bertara.

Ta ajolaz ixirik ondo  
Baratzeko atepak,  
Atetxutik bial zitun  
Etxera neskameak.

Etorri zan beragana  
Mutil gazte galaya,  
Baratzeko txoko baten  
Eskutatu zegona.

Eta guk ezaguturik  
Bere asmo lizuna,  
Laisterka etorri giñan  
Zegoazen lekura.

Guk ikusi giñituan  
Gauze txarra egiten,  
Ta bertatik asi giñan  
Gazte ura lotuten.

Baño zelan biok giñan  
Gizon agure aulak,  
Iges egin zigun errez  
Mutil gazte zoliak.

Baño nekez bazan ere  
Lotu gendun bestea,  
Ta ementzek daukazuten  
Andre Susana zala.

Eta guk bein eta berriz  
Galdetuarren oni,  
Gazte aregaitik ezer  
Ezigun esan guri.

\* \* \*

Erriak sinistu zien  
Zirenak zireala,  
Ta epaitu zuten Susana  
Arrika erailtzea.

Eta Susanak  
Esan ei zuan  
Abotz zolian,  
Jaun betikoa!  
Diran baño len  
Gauza guztien  
Ezagutzalle  
Azkarra zera.

Zeuk dakizu ba  
Neurexen aurka  
Gezur andi bat  
Jaso dutela,  
Ta ilten neutela  
Errugabea,  
Irozturikan  
Zitalkeriak  
Asmatutako  
Gezur utsean.

\* \* \*



Eta Jaungoiko altsuak  
Entzun zion otoitza,  
Ta laster bialdu zion  
Gotzon askatsallea.

Jaungoikoak ordu artan  
Egiteko zuzentza,  
Bere goi-argiz bete zuan  
Danel mutil gaztea.

Zeramatela Susana  
Erailteko lekura,  
Danelek didar andian  
Esan zuan onela.

Andre onen eriotzan  
Nik ez daukat errurik  
Eskuak nai ditut garbi  
Beronen odoletik.

Ta osteak arrituta  
Begiratuten dio,  
Endanean aginduaz  
Bere itzak azaltzeko.

Bein ostearen erdian,  
Danel mutil gaztea,  
Asi da gogoz azaltzen  
Bere itzaren zioa.

Orren ergelak zarea  
Israelko semeak,  
Egia ez ikusteko  
Dezutela aurrean?

Edo noiztik orren maltzur  
Egi egian aurka  
Epaipean zigortzeko  
Israelko alaba?

Itzuli epailekura  
Egiteko zuzentza,  
Gezurra dabil jario  
Andre onen aurka-ta.

Itzuli ziran laisterka  
Guztik epailekura,  
Ta zarrenak Daneleri  
Itz dagie onela.

Erdu ta jezarri zaitte  
Gurekin batzarrean,  
Jainkoak jaso zaituta  
Gutariño omenean.

Erakutsi egiguzu  
Zeuk dakizun guztia,  
Bada guk nai degu jakin  
Non dagoan egia.

Ta Danelek esan zien,  
Orrek epaituteko,  
Bata bestearengandik  
Aldendu lenago ondo.

Bata bestearengandik  
Aldendu zutenean,  
Euretako bati itz dagio  
Danel gazteak olan.

Betiro gaiztakerian  
Aguretu zarena,  
Bizkar gañean dezu gaur  
Guztien zigorrada.

Errugabe ta zuzena  
Ez eriotzaratu,  
Jainkoak argi esana  
Daukala badakizu.



Auarren beti erruge  
Eriotzpetu dezu,  
Ta epai bidegabeaz  
Sarri gaizkiña askatu.

Oin bada ikus badituzu  
Zelango zuaitzpean  
Izketan ikus dituzu?  
Legeltxoren azpian.

Eta Danelek dasayo  
Zeure buruan aurka,  
Gezurtau zaren ezkerro  
Ziur zaude galdua.

Orra oin zelan datorren  
Jainkoaren gotzona,  
Jainko-espatea artuta  
Zu bertan erailtera.

Ta au aurretik kenduta  
Ekarteko bestea,  
Agindu zien Danelek  
Arin epailekura.

Ta itz dagio oneri olan  
Kanan-endako zera,  
Ta ez Judu-endakoa  
Orren gizon zitala.

Ederkunak atzipetu  
Dizu zuri burua,  
Ta lizun-sukarrak jarri  
Goiberatu biotza.

Israeltar alabakaz  
Zuek beti orrela,  
Eurek bildurak artuta  
Itz eiteko daudela.

Baño Judako alaba  
Nork menpetu orrela,  
Bere siniste zintzoren  
Alaba zintzo dala?

Oin bada esan daidazu  
Zelango zuaitzpean  
Izlari ikusi dituzun?  
Artearen azpian.

Eta Danelek dasayo  
Zeure buruan aurka,  
Gezurtau zaren ezkerro  
Ziur zagoz galduta.

Ona emen non datorren  
Jainkoaren gotzona,  
Espata eskuan biok  
Erailteko batera.

Didarka asi zan ostea  
Abotz zoli sendoan,  
Sinistetsuaren aide  
Jaunaren omenean.

Eta jaso zan ostea  
Agure bien aurka,  
Danelek gezurtatuko  
Bi lizunak zigorka.

Ta bete zuten euretan  
Ainbesteko nekala,  
Bereala biak illik  
Agirian arrika.

Ta atera zan egun artan  
Azke errurik gabea,  
Jaungoikoagan eukita  
Itxaropen osoa.



Elkiak emazteagaz  
Goratu zun Jainkoa,  
Zalako euren alaba  
Susana andre ontsua.

Goratu zuan Jainkoa  
Yokin bere senarrak,  
Susana garbi zalako,  
Berebat senideak.

Ta gero ta andiago zan  
Danel erri-aurrean,  
Egun atati asita  
Beti aurrerantzean.

*Ondarrabi, 1925*

## Ijitoa

Donoki goyan  
Ta lurra bean,  
Mundu onetan  
Gelditu nintzan.

Baño auarren  
Nik ez negarrik,  
Artzen badakit  
Dagon lekutik.

Gaur gosea-ta  
Biar olloa,  
Kartzelan sarri  
Egon bearra.

Guztik oinpentzen  
Dute ijitoa,  
Ta guztin lepotik  
Bizi naizela.

\* \* \*

Orriak zenbat  
Pikuak ainbat  
Ematen ditu  
Piku-zuaitzak.

Ta itz bakoitzean  
Gezur ederra,  
Ijitok guri  
Sartzen digula.

*Ondarrabi, 1928*



## Euskaldun jayo

Euskaldun jayo  
Ta euskaldun il,  
Euskalerrian  
Sei milla urtean  
Nere gurasok  
Didar egin.

Enaiz izango  
Ni zentzun gabe  
Didar orixe  
Inoiz ein gabe,  
Ene odola  
Ene zentzuna  
Neugan bazaude  
Sutu zaitezte.

\* \* \*

Izkuntz guztiak  
Ditut nik maite,  
Baño nerea  
Zazpitan maite.

Euskaldun jayo  
Ta euskaldun il,  
Amets ortantxe  
Nik bizi nai.

*Ondarrabi, 1927*

## Ondarrabiko semeak

Biotz gañean  
Ondarrabia,  
Dalako erri  
Zoragarria,  
Atsegiñezko  
Baratz ederra,  
Maitetasunez  
Jainkok egiña.

Ondarrabiko semeak  
Gudari pizkor gurenak,  
Buruz eskuz ta bularrez  
Erri zaituten dutenak.

Atsegiñezko baratza  
Jainkoak guri emana,  
Bidasoaren ertzean  
Zoragarria dagona.

Erria erpintxo baten  
Aldamenen itsasoa,  
Zelai eder loretsuak  
Betiro alai ondartzia.

Beti alai zorientsu  
Ondarrabiko semeri,  
Ludi ontako egunak  
Derizkioz gutxiegi.

Sugeak maiz nai izan du  
Baratz onegaz jabetu,  
Baño Ondarrabiko semeak  
Egin dio galeraztu.



Ondarrabia lakorik  
 Iñon be ez uri ederrik,  
 Gau ta egun zoriona  
 Jarioka dagoanik.

*Ondarrabi, 1925*

## **Autarki-dirua**

Iñaki gizon zintzo ta eliztarra  
 Benetako euskalduna,  
 Autarki saldu eragin diote ta  
 Orra oin illun-artega.

Kistarra ta euskaldun utsa izatea zan  
 Beti aren ikurriña,  
 Ta ikurrin onegaz leyal izatea  
 Zan beti bere ametsa.

Nikasio autarkierosle billauak  
 Nekau arte ekin ondoan,  
 Ezin erosi iñolaz aren autarki  
 Auteskunde aroetan.

Azken auteskundietan Nikasiok  
 Gizon maltzurren antzera,  
 Lenagoko bidek utzirik egin du  
 Asmatu bide berria.

Baratz deuneko sugearen antzera  
 Erakutsiaz diru pilla,  
 Iñakiren emaztea atzipetuta  
 Iritxi du autarkia.

Iñakiren emaztea artega dabil  
 Egun bat eta bestean,  
 Nikasiori autarki ematera  
 Senarra ekarartean.

Eta ia azpertia egoanean  
 Eta usterik ezaukala,  
 Nikasiori autarki ematera  
 Ekar ei zuan onela.



Bein autarki ordez eskeiñiko diruz  
 Senarrari itza dagio,  
 Ta senarrak oinazpin zapalduko  
 Ori da ona darautzo.

Geure ta umen zapatetan joango da  
 Autarki diru ori-ta,  
 Oingoan Nikasiori emayozu  
 Neuregaitik autarkia.

Olako irterek eder egin dio  
 Gure Iñaki zintzoari,  
 Ta ordu txarren eman zion berak  
 Autarki Nikasiori.

Autarki diruagaz zapata pilla  
 Erosi du emazteak,  
 Eta urrengo jayan urira dijo  
 An gozatzeko asmoan.

Egun oso osoa sendo azperturek  
 Urian igaro ondoan,  
 Gauen Iñaki etxeratu zanean  
 Txantxetako ezegoan.

Autarki-diruz erosko gauzak dio  
 Ez dira deuz ezetako,  
 Oinazpian zapalduta ere oiña  
 Erreko dizuelako.

Ta kendurik oiñetakoak len-bai-len  
 Bota zituan urruti,  
 Zin egiñik autarkia ez saltzeko  
 Bere bizian iñori.

*Ondarrabi, 1924*

## **Biotz-arantzak**

Iguinduak izan arren  
 Biotzeko arantzak,  
 Eurek dira gizonaren  
 Ongillerik onenak.

Sarri ez daki gizonak  
 Biotz-arantza gaberik,  
 Biriki ondoan berak  
 Ote daukan biotzik.

Erruki ta maitasuna  
 Biotzeko bi lora,  
 Arin zimelduko dira  
 Arantzarik ezpada.

*Ondarrabi, 1928*





## Laminen argia

Goizero dakus goiztarrak  
Sorkaldean izar ederra,  
Ta egunero euskoak  
Larrunen argi diztia.

Axular dauka izena-ta  
Ziñez da goragarria,  
Euskoen izendegian  
Izen omengarriena.

Ez iñoren ejenpluak  
Ezpada barrengo suak,  
Idatzi eragin dioz  
Ain idazti mamintsuak.

Beronen «Geroko gero»  
Izan dalez izango da,  
Euskaldun idaztietan  
Idaztirik diztiena.

Goitik dator gizonentzak  
Beroa ta osasuna,  
Axulartik euskerantzak  
Omena ta argi bizia.

Bere biotz ta buru-doyak  
Ezagutu nai ditunak,  
Irakurri dagizela  
«Geroko gero»n orriak.

Euskeraren iturria da  
Bere idazti mamintsua,  
Beinere leortzen ez dan  
Iturri garbi gardena.

Zugarramurdi dakusgu  
Aldi baten omengea,  
Gezurrez ta sorginkeriz  
Kendu zielako omena.

Baña Axularrek damayo  
Tolesturik goramena,  
Pitxi ederrena bai-da  
Sarako apaiz bikaiña.

Bazterrak argitu gabe  
Noiz egon da argi bizia?  
Augaitik erluzietan  
Gaur dago Euskalerra.

Gaur Saratik zabaltzen da  
Euskalerrian argia,  
Axular idazle dala  
Argi orren iturria.

*Ondarrabi, 1925*



## Umezurtza

Umezurtza naiz  
Gau ta egun  
Ama bearren  
Egonarren ni  
Ez det amarik.

Ez arrebarik  
Edo anairik,  
Aita lanean  
Urian olan  
Eta etxean  
Neuxek bakarrik  
Gaxo gaxorik  
Itun itunik.

Gudaria naiz  
Bortxa legean  
Eraile nabil  
Lur arrotzean.

Ala bearrez  
Eraso baten  
Zauritu naute  
Egozkai zauriz.

Neure oiñazen  
Besteren gisa,  
Ene amatxo  
Oyuka nabil.

Baño ludian  
Nik ez amarik,  
Nire oyuk  
Danak alperrik.

Zauritu naiz-ta  
Gaxoen gisa,  
Biali naute  
Neurexe etxera.

Baño etxean  
Neuretzat dago  
Bakardadea,  
Iñor gabea,  
Erio leku  
Eriotarte  
Beraxe baño  
Larriagoa.

Ludi onetan  
Itun bizi da  
Ama gabeko  
Seme gaxoa.

Neure gelatik  
Oitik bertatik,  
Leyotik atan  
Iñoiz dakust nik  
Txoriñotxua  
Abes abeska  
Pozez beterik.

Itun bada be  
Bizi nai ta ezin,  
Ene zoria  
Zoazkit urrun.

*Ondarrabi, 1925*



## Berrobiko baserritarra

Berrobitar azkarra  
Tori bostekoa,  
Zugan euskerak dauka  
Gudari pizkorra.

Otseileko atsalde  
Euritsu batean,  
Geldokira eldu naiz  
Itxura onean!

Arabatar langille  
Ta baserritarrak,  
Zituzten alkarrekin  
Eztabaida zarrak.

Ni beti euskalduna  
Arabarrak dio,  
Nire jayoterrria  
Euskalerrin dago.

Ez dakik euskera-ta  
Ai ze euskalduna,  
Euskalerrin bizi aiz ta  
Ikazak euskera.

Eztabaidan sartzen da  
Geldoki-burua,  
Euskerantzat dagerla  
Amorru bizia.

Gizon zentzunge ta  
Zitalan antzera,  
Epaile oroiz dakarz  
Sareak bidera.

Ta itz mingarrik esanda  
Euskeran iriñez,  
Gogok bete ziguzan  
Beasun samiñez.

Geldokiko burua  
Ixildu orduko,  
Gure baserritarrak  
Itz jario dauko.

Saretik iges dagi  
Azeri azeri,  
Itzuliaz ziria  
Geldoki-bururi.

Ta ulertzen ezuala  
Itz jarion tutik,  
Geldokiko buruak  
Ein bear burutik.

Ta an giñan euskaldunak  
Parrez noiz lertuko,  
Barrenan gendun poza  
Andia zalako.

Ezegon egiterik  
Azalketarik an,  
Bultzi etor zalako  
Oi lez laisterkadan.

Pozarren sartu giñan  
Guztiok bultzira,  
Itoa genduan-ta  
Biotzeko miña.

Baño baserritarrak  
Dasat belarrira,  
Noiz arte entzun bear  
Olakon iraiña!



Biotzen artu arte  
Euskoak euskera,  
Sarri entzun bearko  
Olakon iraiña.

*Ondarrabi, 1924*

## **Bere orduan**

Goizegi jayo diran  
Txorikume danak,  
Txorikume dirala,  
Danak otsak illak.

Goizegi gaiztakeri  
Ikisko umeak,  
Gisa berean daude  
Euren udako illak.

Aingerun begitadaz  
Izarren dizdia  
Daukaten umeari  
Ez kendu pakea.

Onoidez indarturik  
Aingeru artean  
Bide onean ibil daitezen  
Euren bizitza guztian.

*Ondarrabi, 1925*



## Sasi euskaldunak

Euskaldun arten  
 Anaitasuna,  
 Beti aboan,  
 Ni euskalduna  
 Zintzona ainbat  
 Sarri mingañean  
 Tastade ama  
 Euskerarentzat  
 Biotz barrenean,  
 Gaur au da askoren  
 Euskotasuna  
 Euskalerrian.

Sapaburuak  
 Legez ugari  
 Ur zikiñean,  
 Dagoz olango  
 Euskaldunak gaur  
 Euskalerrian.

\* \* \*

Ama euskera  
 Maite zaitut nik  
 Bene benetan,  
 Nere bizi au  
 Zeure izango da  
 Naizen artean.

*Ondarrabi, 1924*

## Josepa Antoni

*Kontu zarra*

Taberna zale purrukatua  
 Josepa Antonin senarra,  
 Garay onean etxeratzea  
 Ezan arentzat erreza.

Ia amaikak amabitarte  
 Beti senarra tabernan,  
 Eta bitartean Josepa Antoni  
 Bere etxean marmarizan.

Gero senarra zetorreanean  
 Ordu luzean itzaldi,  
 Josepa Antonik egiten zion  
 Senar taberna zaleri.

Baña sartu zayoz biotz-erreak  
 Berari egun batean,  
 Bere itzaldik zirela ikusirik  
 Itzaldik basamortuan.

Ta oldoztuten du bear zuala  
 Beste bide bat berak artu,  
 Gure bazuan bere senarra  
 Iñoiz ikusi zuzendu.

Ta urrengo gauerdian atea  
 Senarrak jo zionean,  
 Olan diote erantzun ziola  
 Abotz zoli garratzean.

Oinarte tabernan egon zera  
 Ta egon zaitea bertan,  
 Au ez da ate irikiteko ordu-ta  
 Zagi biurtu artean.



Ordu beteko senarren deyak  
Alperrik izan ei ziran,  
Eta senarrak esan ei zion  
Itoko zala putzuan.

Zuk lenengo gauz ona egite  
Izango leitikelako,  
Olangorik egingo dezunik  
Ez dizut nik sinistuko.

Ta senarra isil ixilik doia  
Bidezigortik putzura,  
Ta Josepa Antoni dago ernai  
Senarrari begiraka.

Senarrak arantz artean edo  
Eskutatu du burua,  
Ta arri andiaz putzuan dagi  
Berebiziko plastada.

Josepa Antoni bere senarra  
Itoten egolakoan,  
Asi da ausokori oyuka  
Garrazi eta orruan.

Bilduak dira auso guztiak  
Txiploi ondoan laisterka,  
Ta iñola ezin dute arkitu  
Bertan itotzen egona.

Ta iton gorpua billa ta billa  
Nekauta itzul zirenean,  
Atea itxita arkitu ei zuten  
Josepa Antonin etxean.

Eta oyuka asi zirenean  
Ate iriki ate iriki,  
Josepa Antonin senarrak olan  
Erantzun zien eureri.

Zer ate iriki ta zer pola  
Ez det nai iriki atea,  
Au al da garaya etortzeko  
Emakumea etxera?

*Ondarrabi, 1924*



## Abereakaz ere erruki

Mandatarin jinjoala  
 Irten zait bidera,  
 Etxadi baten ondoan  
 Txakurtxu polita.

Gorputza eukan beltza berak  
 Ankatxuk gorrizkak,  
 Sudur gañean lau begi  
 Bi beltz ta bi ori.

Ogei oinkada enitun  
 Oraindik emanak,  
 Eta itzuli eraz nute  
 Antziri samiñak.

Txakur onginaitsuari  
 Gazte anker utsak,  
 Arrikada gogor batez  
 Ausi dioz azurrak.

Eta txakurtxua antziriz  
 Etxerantza doya,  
 Lurren narraz daramala  
 Iztar apurtua.

Abereakaz ere erruki  
 Badio Jainkoak,  
 Abereakaz orren anker  
 Zergaitik gizonak?

Ankertasunez aberek  
 Minduten ditunak,  
 Etor daikez sinistra  
 Ludian eurentzat  
 Pizti edo abereak  
 Direla guztiak.

*Ondarrabi, 1924*

## Begindu

Batera izan-eta  
 Bestera begindu,  
 Maiz egiten dala  
 Ludian gertatu.

Augaitik ludia  
 Gaur dabil ain estu  
 Legea non dagon  
 Ezin dala asmatu.

Baño lege gabe  
 Nork bidez agindu?  
 Indarra eginda  
 Beragaz jabetu.

*Ondarrabi, 1927*



## Oldozkunak

Urretxindorra goyan dago  
Txindorran gañetik,  
Baño ez dagi inoiz parre  
Txindorran lepotik.

Gauza asko bakarrik dira  
Garrantzi andiko,  
Garrantzirik ez daukean  
Gizontxuentzako.

Gorputzen, urten astunak  
Astunak badira,  
Uste aldakeran ere  
Badute astuna.

Amaikatxu arazotan  
Esan oi da ludian,  
Ezin det esan bearren  
Ezinkorra da agian.

Nai duanak egotea  
Sendo zartzaroon,  
Gazte dala bizi bear  
Zarraren neurrian.

Ezarela disipatzen  
Zuk sarri diozu,  
Baña upel utsa, ustutzea  
Nola zuk nai dezu?

*Ondarrabi, 1928*

## Adizkideri

Urteak dira igaroten  
Oroi ona gerauten,  
Biotz-arantzak zulatzen  
Ta igaro gabe irauten.

Ez naizela adizkidekaz  
Ni iñoiz ere aztutzen,  
Oi! biotz-bakartasunen  
Zenbat ditut oroitzen.

Neure oroi dutenari  
Nik eskerrak ematen,  
Erdiak balire zein errez  
Beste erdiri parkatzen.

*Ondarrabi, 1928*





## Ama ta guda

Udaberriko begian  
Itzultsen da enada  
Uda azkenen utzi zuan  
Bere txoko maitera.

Baño guda gogorrean  
Il dan seme gaxoa  
Ez da ez inoiz itzultsen  
Amatxon besotara.

Amatxo negar ta negar  
Miñez il bearrean  
Ta gorpu bere semea  
Urrun lur-arrotzean.

Ajolaz ta maitasunez  
Asitako semea  
Ia beti dollorkeriz  
Diot kentsen diela.

Ia beti menpetseko  
Iñorena dan lurra  
Gorrotogarri eginik  
Odolez gorrituta.

Amarena zoritxarra  
Asirik seme ederra  
Diotenean «gudan  
Il da zure semea».

*Ondarrabi, 1925*

## Nagusia

Edurra ta txakurra  
Biak bildurgarri,  
Bata amorratu danen  
Beste izotz itzuli.

Nere nagusi beti  
Dala bildurgarri  
Amorru ez danean  
Dago beti larri.

Ongi egin ezkerro  
Ak kariñu gutxi,  
Baño ongi egin ezik  
Amorru ta erdi.

Nik ez det ezagutzen  
Morroiegillerik,  
Baño ez du egiten  
Munduan paltarik.

*Ondarrabi, 1927*



## Deun biren ollasko errea

*Amairugarren gizaldiko Askitsa Pantzekarra.*

Banintza Prantzisko Deuna lakoa  
Ta ez naizen obendaria,  
Berau bezela naiko nuke euki  
Klara Deuna edo lakoa.

Oek Jainkoaren otseindariak!  
Len aberatsak oin txiroak,  
Biak asistar Jainko maitatiak  
Nun arkitu eurek lakoak?

Biak zebiltzan Asis ondoan  
Jainko maitasuna zabaltzen,  
Biak zebiltzan euren ustean  
Osteari ondo egiten.

Baña mingarria gerta zitzayen  
Ezekitena ikasi zuten,  
Erri guztian zebiltzala erruz  
Biekaiti gaizki esaten.

Egun batean etorri ziraden  
Azoka zegoan lekura,  
Ta gosek illak zetozen-eta  
Eskatu zuten janaria.

Aragia utzitzeko eguna zan  
Egun ura leku aretan,  
Ta Deunen lepotik parre egin nayan  
Ostatari zegoan agian.

Ostatariak pozik eman zien  
Jateko ollasko ondo errea,  
Ostalariak parre egin zezaten  
Deunen ollaskoa ikusita.

Baño Deun Prantziskok ollaskoari  
Bota zion onetsipena,  
Ta ostatari eskun arri itzail zan  
Bere ollasko ondo errea.

Ta inork ezin parre egin Deunen lepotik  
Zebiltzala zeru bidetik,  
Mirariak zegizala Jainkoak  
Bere bi Deunen onagaitik.

Azoka lekutik irten ziraden  
Mirariarren ain minduak,  
Ikusirik eurekanako osteak  
Eukezala mingain zorrotzak.

Ta ixil dijoaz bidean barrena  
Deuna aurretik, Klara atzetik,  
Miñez ta itunez batak besteari  
Eziela egiten itzik.

Negu gorria zan, elurtza zegoan  
Mintsu ta ixil ibil ta ibilli,  
Eldu ziraden biak oyanara  
Ta Deunak dasayo Klarari.

Ene Klara, arreba maite kutuna  
Osten erromesa dala-ta,  
Oraintzek ementzek elkarrengandik  
Biok aldendu bear gera.

Gaberoko Jeronimo Deunera  
Zu arreba iritxiko zera,  
Ta ni juango naiz biderik bide  
Jainkoak neraman lekura.

Subazioko oyanatatik barren  
Klark artu zuan bidea,  
Berealaxe igil ta apal eginik  
Prantziskok agindu ziona.



Ta bide zatia egin orduko  
Itzuli zan Klara didarka,  
Noiz artean iraun bear du gero  
Aldakuntz onek Prantzisko nere aita?

Elur txuria urtu artean Klara  
Lorak loratu artean,  
Biok ikusiko gera berriro  
Lora aroan, udaberrian.

Aurrera zijoan Prantzisko Deuna  
Bere Porziunkula aldera,  
Klara ere Jeronimo deunerontz  
Mintsu ta ixil zegin bidea.

Baña alatzaz laister dakus oyana  
Zoragarri elur gabea,  
Zuaitzak ostotsu, lorak loratsu  
Eta itzulia udaberria.

Irudimen lillura zalakon zegon  
Zalantxan estu Klara Deuna,  
Ta aldameneko orre loretsuari  
Demaz bota zion eskua.

Baña ezan lillura, alatza baizik  
Leraz egin zuan lora txorta,  
Ta didar ta didar, yoran yoranez  
Itzuli zan Prantzisko billa.

Alatzesko lora txorta esker onez  
Artu zuan Prantzisko Deunak,  
Goiko Jaunari yoranez emonik  
Biotzeko esker samurrak.

Eta gertakizun gelgarri ontaz  
Askitzak digu edesti aurka,  
Eziradela geroztik alden du  
Prantzisko ta bere damia.

*Ondarrabi, 1925*

## Gizon bulartsua

Gizon artean gizon abilla  
Gure dabenak arkitu,  
Larazabal'dar Lorentzo jaunaz  
Egin dedilla oroitu.

Milla ta zortzireun eta seian  
Marurin zan munduratu,  
Amalau urtez Kuba bidea  
Asmoz beterik zun artu.

Eskola gitxi diru gitxioz  
Ontzi andira gidatu,  
Sukalden bear gogoz eginda  
Ontzi txartela ordaindu.

Sorpen bururik ikusi gabe  
Kuba lurrera zan eldu,  
Ta bein bertaratu zan ezkerro  
Argin peoitzan moldatu.

Peoitzta utzirik argintzan sartu  
Ikasten beti sayatu,  
Egun guztiko izerdi guztiak  
A ezin zuan kukuldu.

Egunaz bear gabaz ikasten  
Laster ein zan bera maisu,  
Argin artean onek bestean  
Iñork bururik jaso ez du.

Liburu bidez maisu gaberik  
Jakituriaz jabetu,  
Augaitik notarioak  
Lendakari dabe autatu.



Ango ikastek ango bideak  
Beraxek dabe Iturburu,  
Augaitik beti Kuba guztiak  
Egiten daula maitatu.

Buru argia biotza andia  
Giza errukiz gainieztu,  
Amaika bider berak ein dio  
Gaxori esku luzatu.

Arren biotza zuzen bidean  
Nekez inork ere goitu,  
Onen antzeko gizon bearrez  
Dagola gaur gure mundu.

Izurri baltza bere denporan  
Bein ta berriz zan zabaldu,  
Kuba guztiko zeru ederra  
Eginik sendo baltzitu.

Zerua baltz ta lurrean minez  
Gizon guztiak sotintzu  
Izurri piztik egin zulako  
Negar t'erio zabaldu.

Izurri arren igesi gabe  
Jauregi atek zabaldu,  
Errukigarrin negar malkoak  
Sarri eginik leortu.

Berau bestean errukitsurik  
Nekez egingo da agertu,  
Erri-zoruna egitearen  
Ein zalako alegindu.

Aintza ta aintza zuri Lorentzo  
Biotz beroz dagit oyu,  
Zu lako gizonik ludi onetan  
Ez dala sarri agertu.

*Armintza, 1960*

## Txibo landako alaba

Euskera zalek ementxe gagoz  
Asmo bikainez beterik,  
Geure euskera sendotuteko  
Gaurtik biarko itxi barik.

Ama euskera geurea dala  
Ezin deikegu ukatu,  
auarren beragaz beti gara  
Era txarrean portatu.

Milla bider goizetik gabera  
Egiñik bera zapaldu,  
Gure izkuntza bertan bera itxita  
Egiñik erderaz mintzatu.

Auzokoari errua bota  
Ori esanda lasai lotu,  
On balitza sendakai ona  
Euskera ezango makaldu.

Irakasleri eta beste askori  
Botatzen deutzegu erru,  
Baña errudun andienak  
Etxe barrutan ditugu.

Mirentxu nora soiaz orren arin  
yo que no sé bascuence,  
Euxek bai dala entzun samiña  
ta askotan entzuten dana.

Aipatu degun Mirentxu ori  
Txibo landako alaba,  
Etxe orretan guraso ta abar  
Euskaldunak danak dira.



Alde batetik eta bestetik  
Euskaldunak danak dira,  
Aurren etxe aretan tutik  
Ez da egiten euskera.

Mirentxu asi da ikastolara  
An ez da geiago euskerarik,  
onen antzeko kirtenkeriak  
eiten ditugu pentza barik.

Ondo ikasi dagien edo  
Mirentxuk bere erdereaa,  
Ingerutik jurtiten dogu  
Gure euskera maitia.

Etxeko izkuntzaren jaun ta jabe  
Beti dirade gurasoak,  
Ta euskeraz mintzatu bear  
Baara gu lotzadunak.

Txibo landako Mirentxu asko  
Daoz Euskalerrin zabaldurik,  
Izurri ori galtzen ezpadu  
gagoz betiko galdurik.

*Armintza, 19-4-60*